



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

Jolas dramatikoak: haurren elkarbizitzarako tresna Ludotekan.

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Moreno Escobar, Yasmina.

ZUZENDARIA: Álvarez Uria, Amaia.

2019-2020

LABURPENA: Lan honen helburuak haurren aniztasunaren trataera eta elkarbizitza dira. Horretarako, haur antzerkia erabiliko da, zehazki jolas dramatikoia izango da lanabes nagusia. Egoerari dagokionez, hezkuntza ez formalean kokatuko da proposatutako eskuhartzea, kasu honetan ludoteka batean. Ikerketa egingo da ludotekako umeei dituzten beharrak ezagutzeko, jarraian zerbitzua emango da detektatutako hutsunea betetzeko, eta amaitzeko hausnarketa eta balorazioa egingo dira. Izan ere, Ikaskuntza Zerbitzuan oinarritutako lan bat da gradu amaierako lan hau. Haurren beharrak zeintzuk diren detektatzeko hainbat tresna erabili dira: haurrekin elkarrizketa, gurasoentzako galdetegia, hezitzailearen behaketa fitxa eta egunerokoa. Tresna hauekin ateratako emaitzek adierazten dute ludoteka haurrentzako leku erreferente bat dela, han gertatzen denak eragina duelako auzoan, eta bertan haur txikienei protagonismo beharra daukatela, honez gain, haurren artean lider rola betetzen dituzten haurrak daudela eta honek elkarbizitzan eragina duela. Amaitzeko, ludoteka auzoarentzat toki garrantzitsu bat dela jakin beharra dago eta bertan gertatzen dena auzoan eragin zuzena duela.

Hitz gakoak: jolas dramatikoia, gatazken ebazpena, talde kohesioa, Haur Hezkuntza, ikaskuntza zerbitzua

RESUMEN: El objetivo de este trabajo es tratar la diversidad y la convivencia infantil. Para ello se utilizará el teatro infantil y el hilo principal será el juego dramático. Será una investigación realizada en el ámbito de la educación no formal, en concreto en una ludoteca. Esta investigación se hará para detectar las necesidades de los niños y niñas para después poder responder a esas necesidades, para terminar se hará una valoración y una reflexión. Este trabajo de fin de grado estará basado en la estrategia aprendizaje-servicio. Para detectar las necesidades de los niños y niñas se utilizarán una serie de herramientas: entrevista con los niños y niñas, cuestionario para padres y madres, ficha de observación de la educadora y un diario. Con los resultados obtenidos mediante estas herramientas se deduce que la ludoteca es un sitio referente para los niños y niñas del barrio y que los más pequeños y las más pequeñas necesitan atención, además, hay ciertos líderes en el grupo que afectan directamente a la convivencia. Para terminar, la ludoteca es un sitio importante para el barrio y lo que ocurre en ella tiene repercusión en el mismo.

Palabras clave: juego dramático, resolución de conflictos, cohesión grupal, Educación Infantil, Aprendizaje-Servicio.

AURKIBIDEA

1	SARRERA.....	5
2	JUSTIFIKAZIOA.....	6
3	MARKO TEORIKOA	8
3.1	HEZIBERRI 2020 DEKRETUA.....	8
3.2	IKASKUNTZA ZERBITZUA.....	10
3.3	LUDOTEKAK.....	10
3.4	ELKARBIZITZA, GATAZKAK, SOZIALIZAZIOA.....	11
3.5	JOLASA.....	12
3.6	ANTZERKIA ETA JOLAS DRAMATIKOA.....	15
3.7	JOLAS DRAMATIKOA HEZKUNTZAN	16
4	METODOA.....	18
4.1	TESTUINGURUA.....	18
4.2	HELBURUAK	19
4.3	PROZEDURA.....	20
4.4	PARTAIDEAK	21
4.5	TRESNAK.....	21
5	EMAITZAK	23
5.1	HAURREKIN EGINDAKO ELKARRIZKETA.....	23
5.2	GURASOEI EGINDAKO GALDETEGIA	23
5.3	BEHAKETA TAULA.....	29
5.4	EGUNEROKOA.....	30
6	ESKU HARTZEA	31
6.1	1.SAIOA: Espazioaren lanketa	31
6.2	2.SAIOA: Taldea.....	32
6.3	3. SAIOA: Gorputza, mugimendua.....	32
6.4	4.SAIOA: Ahotsa eta soinua	33
6.5	5.SAIOA: Dramatizazioa eta antzerkia	34
7	HOBETU BEHARREKOAK	35

8	HAUSNARKETA.....	36
9	BIBLIOGRAFIA.....	37
10	ERANSKINAK.....	39
10.1	GURASOENTZAKO GALDETEGIA.....	39
10.2	BEHAKETA TAULA.....	40
10.3	SAIOEN EGUNEROKOA.....	42

1 SARRERA

Gradu Amaierako Lan (GrAL) honetan jolas dramatikoak ludoteka bateko eguneroko elkarbizitzan izan dezaken onurak aztertzen ditu. Ikerketa hau Bergarara herriko (Gipuzkoa) Osintxu auzoan kokatzen den ludoteka publikoan eraman da aurrera. Osintxu oso auzo partaidea eta bateratua da horregatik Ikaskuntza Zerbitzuan oinarritu den lan bat da. Zerbitzu hau ezagutzearan jabetu nintzen ludoteka oso toki egokia zela ildo horretatik lan egiteko. Aurrerago aipatuko den bezala, auzoan gertatzen dena ludotekan eragina duelako eta alderantziz.

Niretzat oso berezia izan da GrALa ludotekan egin ahal izatea, lau urte daramatzat bertako hezitzailea izaten eta oso aberasgarria iruditu zitzaidan bertako elkarbizitza hobetzeko tresna berriak ezagutzea eta haurren beharren behaketa beste ikuspegi batetik egiteko aukera izatea. Honez gain, Ikaskuntza Zerbitzuan oinarritzean, auzoari zerbait eskaintzeko aukera nuela sumatu nuen eta lana bukatu arren, ikasturte berrian jolas dramatikoa erabiltzen jarraituko dut elkarbizitza hobetzeko tresna gisa.

Testuinguruaz gain, argi nuen GrAL-aren gaia antzerkia izatea nahi nuela eta zorionez hau esleitzeko aukera izan nuen. Irakurzaletasuna eta liburutegiak Minorra burutu nuen eta orduan konturatu nintzen antzerkiak atentzioa deitzen zidala eta gehiago sakondu nahi nuela. Honez gain, ludotekako haurrak askotan egiten dituzte antzerkiak, ikuskizunak edo jaialdiak eta haiei tresna gehiago eskaintzeko aukera izatea ezin hobea iruditzen zitzaidan.

GrAL hau hainbat atalez osatua dago eta guztiak izan dira beharrezkoak ikerketa aurrera eraman ahal izateko. Hasteko justifikazioa aurkitzen da eta bertan jolas dramatikoaren garrantzia azaltzen da. Jarraian marko teorikoa dator eta bertan ikerketarako garrantzitsuak diren hainbat gaietako informazio dago. Adituen hitzetan sakondu ostean, lana aurrera eramateko erabili den metodoa azaltzen da eta ondoren lortutako emaitzak. Ondorengo atala esku hartzea da, bertan ludotekan egindako saioak azaltzen dira. Honen ostean, hobetu beharrekoen atala dator eta amaitzeko hausnarketa pertsonala. Honen ostean erabili den bibliografia eta eranskinak aurkitzen dira.

2 JUSTIFIKAZIOA

Hezkuntzaren barnean, hezkuntza ez formalari garrantzia ematea nahi izan dut lan honekin. Ludoteketan haurrak jolasaren bitartez hezteko aukera ematen dute eta honekin batera bizitzarako hainbat tresna eta balore transmititzeko aukera ere. Tejadok eta Romerok (2007) azaltzen dutenez, hezitzaileok aukera zabalak ditugu geure lana aurrera ateratzeko, honez gain, geure esku dago hurrei baliagarriak izango zaien erramintak eskura jartzea. Hori dela eta, elkarbizitza hobetzeko, gatazkak kudeatzeko eta ongi pasatzeko jolas dramatikoak aurkeztu nahi izan diet hurrei, baliagarria izango zaien tresna gisa.

Hurrei tresna hau aurkezteaz gain, beraien behaketa sakon bat egiteko erabili dut lan hau. Ekintzen aurretik, ekintzetan zehar eta ekintzen ondoren hurrek sentitu dutena ezagutu nahi izan dut eta prozesu guztiari eman diot garrantzia izan ere alde emozionalak garrantzi handia hartzen duelako hurren garapen holistikoa. (Viloria, A. 2005 in Tejado eta Romero 2007).

Lan honek duen berezitasuna, Ikaskuntza Zerbitzuan oinarrituta egotea da, zerbitzu honetan intentzio pedagogikoa eta solidarioa elkartzen dira proiektu sozial bat sortuz. (Mendia Gallardo, R., 2012). Hortaz, Osintxu auzoan eragin zuzena izango du ikerketa honek, hurrek gustura ikasitakoa eguneroko bizitzan erabiliko dute eta eragin positiboa izango du auzoko giroan. Honez gain taldean lan egitean, balore desberdinak ikasteko eta talde izaera indartzeko aukera izan dugu eta ni hezitzaile gisa haurrak gehiago ezagutzeko eta beraien beharrak detektatzeko aukera izan dut, hortaz, nire eguneroko lanean eragin zuzena ere izango du ikasi dudana guztia.

Bestetik, lan hau aurrera eramatekoan hurren gustuak izan dira abiapuntua. Saio pertsonalizatuak burutu dira eta haur guztien gustuak eta denborak errespetatzen saiatu naiz. Jolasaren garrantzia oso presente izan dut, izan ere hurren berezko ekintza bat delako eta ondo pasatzen duten bitartean eskuratzen dituzten ezagutzak erraz gogoratzen dituztelako. Horregatik, behaketaren zein elkarrizketaren bitartez ezagutu ditut hurren gustu horiek eta nabarmenena antzerkia izanik jolas dramatikoak antolatu ditut. Ramirez Carmonaren (2009) hitzetan, dramatizazioaren bitartez hurrei askatasunez adierazteko aukera ematean beraien ikuspegiak transmitituko dizkigute eta barnean dituzten emozioak azaleratzeko aukera emango zaie.

Laburbilduz, lan hau aurrera eramatean benetako onurak lortu dira eta ludotekako zein auzoko giroa hobetzeko bideari ekin diogu. Guztion artean enpatia landu dugu eta alde batetik gatazkak konpontzeko tresnak eskuratu ditugu eta bestetik elkarrekin goatzeko aukera izan dugu.

3 MARKO TEORIKOA

Haurrak jaiotzen diren momentutik antzerkia edo dramatizazioa erabiltzen dute mundua ezagutzeko. Debbie Chalmers-ek (2010) azaltzen duen bezala, haurrak txikitatik beraien jolasetan hainbat pertsonaia antzezten dituzte eta egoera zein jolasaren arabera hauek aldatzen dituzte modu naturalean. 0-6 urte bitarteko haurretan talde antzerkia lantzeak beraien ikasketa kurrikularra aberasten duela azaltzen du, izan ere, antzerkiaren bitartez hainbat gaitasun lantzen dira, hala nola: gaitasun matematikoa, gaitasun fisikoa, sormenerako gaitasuna eta gaitasun komunikatiboa. Azken hau izango da lan honetan garrantzi handia hartuko duen gaitasuna, haurren arteko eta haurren eta hezitzaileen arteko komunikazioa hobetzea izango baita helburu nagusietako bat.

3.1 HEZIBERRI 2020 DEKRETUA

Lehenik eta behin, Heziberri 2020 dekretuan lan honetan jorratuko diren atalei buruzko informazioa txertatuko dut. Alde batetik elkarbizitzarako kompetentzia landuko da eta honen inguruko atala dago dekretuan, honela dio:

Etapa honetan, familiatik eskolara igaroz, handitu eta zabaldu egiten da haurren ingurunea. Gizartean hartu-emanak izateko aukerak handitzen zaizkie, eta horrek bide ematen die pertsonekin harremanak izateko, lankidetzan aritzeko eta elkarrekin bizitzeko. Ingurunearekin eta beste haur batzuekin hartu-emanak izanda, hurbileko duten inguruan integratuko dira eta, arian-arian, gai izango dira pentsamendu-prozesuak lantzeko, erabakiak hartzeko, arazo-egoerak ebazteko, errealitatea eta bizi duten mundua ezagutzeko, eta baliabide kognitiboak gero eta era landuagoan eta konplexuagoan erabiltzeko. Hori horrela izango baldin bada, egoera hauek planteatu behar zaizkie haurrei: norberaren sentimenduak, pentsamenduak eta gogoak modu asertiboan adierazi, eta, era berean, gainerako pertsonen sentimenduak, pentsamenduak eta desirak adi entzuteko aukera ematen duten egoerak; taldean ikasteko eta lan egiteko egoerak, nor bere gain hartzeko norberari dagozkion ardurak eta elkarlanean aritzeko helburu komun bati begira; giza eskubideei dagozkien printzipio etikoak eta bizikidetzarako gizarte-aztura oinarritzkoen ondoriozko arau sozialak betez jokatzen ikasteko egoerak; eta gatazkak

elkarrizketaren eta negoziazioaren bidez konpontzeko aukera ematen duten egoerak (Euskal Herriko Agintaritzaren aldizkaria. 2016, 9zka, 24orr.).

Jorratuko den beste gai bat gatazken kudeaketa izango da eta honekin erlazioa duen konpetentzia sozial eta zibikoaren atala ere jorratzen da Heziberri 2020 dekretuan. Honela dio:

Haurrek gizarte-errealitatea ulertzeko bidea urratzen dute familian eta eskolan prestutasunez, errespetuz, elkarlanean eta ekimenez parte hartzen dutenean, genero-diskriminaziorik gabe. Honako jardun hauek landu behar dira bizikidetzarako trebetasun sozialak eskuratzeko gizarte plural eta demokratikoetan: norberaren inguruko esparru guztietan gogoz eta arduraz parte hartzea, jokabide egokiak eta desegokiak bereiztea, gatazkak bide baketsuetatik konpontzea, norberaren iritziak adierazi eta defendatzea, eta gainerako pertsonen iritziak errespetatzea (Euskal Herriko Agintaritzaren aldizkaria. 2016, 9zka, 26orr.).

Dekretuarekin amaitzeko, lan honen bitarteko nagusia den arterako konpetentziari buruz diona Heziberri 2020 azalduko da:

Material askotarikoak arakatu eta sormenerako erabiltzen baldin badira, kultura ezagutzeko, ulertzeko eta balioesteko bidea egiten da; era berean, artea balioesteko eta arteaz gozatzeko trebetasunak eskuratzen dira, baldin eta adierazpen-teknika oinarritzakoak erabiltzeari ekiten baldin bazaio irudimena eta fantasia elikatzeke, abestiak, dantzak, mugimenduak eta adierazpenak interpretatzeko jarrera lantzen baldin bada eta bertako eta beste herrialde batzuetako adierazpen artistiko eta kulturalekiko interesa eta jakin-mina pizten baldin badira (Euskal Herriko Agintaritzaren aldizkaria. 2016, 9zka, 26orr.)

Konpetentzia hau Haur Hezkuntzara eramanez gero, honen eremua "Nortasunaren eraikuntza, komunikazioa eta adierazpena" izango litzateke. Beraz, Haur Hezkuntzatik hasita dramatizazioak haurren nortasuna eraikitzen lagunduko du, kanpoko harremanak hobetuko ditu, eta, besteak beste, autoestimua eraikitzen lagunduko du.

3.2 IKASKUNTZA ZERBITZUA

Ikaskuntza zerbitzua honela definitu daiteke: ikaskuntza prozesua eta komunitateari zerbitzua elkartzen duen hezkuntza proposamena da. Hau guztia ondo giltzatuta dagoen proiektu batean elkartzen da. Partehartzaileak ikasten doaz testuinguruko benetako beharrak lantzen dituzten bitartean. (Puig, 2007 in Mendi, 2012). Ikaskuntza hau besteetatik bereizten da metodologia proaktiboa, kooperatiboa, erlazionala, zuhurra eta eraldatzailea delako (Martinez Usarralde, 2014; Santos, Sostelino eta Lorenzo, 2015 in Álvarez Castillo, Martínez Usarralde, González González, eta Buenestado, 2016).

Ikaskuntza zerbitzua ludoteka honetan aurrera eramatea oso aproposa da, izan ere, ikaskuntza eta zerbitzua elkartzean onurak areagotzen direlako. Hauek dira Mendiak azaltzen dituen ikaskuntza mota honen ezaugarri batzuk:

-Ikaskuntzak zerbitzua hobetzen du, ikasten duguna ekintza bitartez eskaini diezaiokegu komunitateari. Honek motibazioa pizten du.

-Asmo pedagogikoak eta asmo sozialak edo solidarioak elkartzen dira hezkuntza proiektu solidarioak sortuz. Partaideen protagonismoa nabarmentzen da eta beraien parte hartze zuzena lortzen du.

-Balioak sustatzen ditu; elkarlana, solidaritatea, etab. Eta honez gain, konfiantza intrapertsonaleko esperientziak errazten ditu eta kontzientzia hiritarra sustatzen du.

-Egindako lanaren gaineko hausnarketa eta ebaluazioa sustatzen ditu, praktika teoriarekin lotzeko eta prozesuan zehar norberaren jarduna erregulatu ahal izateko.

3.3 LUDOTEKAK

Kasu askotan ludotekarekiko dagoen ikuspegia aurreiritzietan oinarritutakoa da, hau da, haurrak aparkatzeko leku bat bezala ikusten da, baina kasu honetan, ludoteka aisialdiaz gozatzeko, balioak garatzeko, eta haurraren garapenean laguntzeko espazio bat bezala ikusten da. Beti ere hezitzaileen laguntzaz eta jolasa ardatz nagusia izanik. Ludotekak hainbat definizio izan ditu urteetan zehar eta Monroyk eta Saez Rodriguezek (2011) artikuluko batean batzen dituzte. Horietako bat 1983tik geroztik dago argitaratua Kataluniako entziklopedian, honela dio: *olgetarako eta kulturarako sortutako instituzioak dira,*

bereziki haurraren garapena jolasaren eta jostailuen bitartez garatzeko asmoz. Bestetik, Kataluniako ludotekarien elkarteak (ATZAR) honela definitzen ditu ludotekak: profesional talde bati, ludotekariei, zuzendutako ekipamendu bat da non jolasa eta jostailuen bitartez proiektu espezifikoa bat duten. Baina pertsonalki, gure ludotekara gehien hurbiltzen den definizioa honako hau da: gune ludiko hezitzailea, egonkorra, haurtzarora eta gaztaroari zuzendutakoa batik bat eta bere helburua honekin: denbora librean heztea (ikastea, gozatzea, erlazionatzea...) eta haurren garapen integrala sustatzea jolasa eta jostailuen bitartez profesionalen laguntzaz, ludotekariak (Monroy eta Saez, 2011)

Ikusi da ludotekak definitzeko hainbat modu daudela baina Monroyk eta Saezek (2011) aipatzen dute autore desberdinek beraien definizioetan ezaugarri berdinak ematen dituztela:

- Haurren elkar guneak dira
- Hurrei zuzendutako jostailu ugari hornituta dauda
- Maila sozial desberdinetako haur guztientzat irisgarriak izan behar dira
- Interbentziorako profesional bat egon behar da, ludotekaria.

Gure kasuan, ludoteka publikoa da. Hau da, Bergarako udalaren zerbitzua da eta guk euskara elkarte gisa kudeatzen dugu. Badaude ludoteka batzuk pribatuak direnak, elkarte zehatz batzuenak direnak, ospitale barruan daudenak, mugikorrek direnak, komertzio handietan kokaturik daudenak, etab (Soler, 2015). Osintxuko ludoteka, esan bezala, publikoa eta egonkorra da eta maila sozioekonomiko guztietako haurrentzat irisgarria, izan ere, tarifa soziala eskaintzen da. Honela, haur guztiei eskaintzen zaie aisialdia euskaraz gozatu ahal izatea.

3.4 ELKARBIZITZA, GATAZKAK, SOZIALIZAZIOA

Sozializazioa elkarreragin soziala duen prozesu bat da non pertsonak bere inguruko elementu soziokulturalak ikasten eta barneratzen dituen esperientzia eta eragile sozial esanguratsuen bitartez (Abad, 1993). Honekin batera, sozializazioa ulertzen da garapena eta identitate pertsonala ahalbidetzen duen prozesua bezala eta kultura baten transmisio eta ikaskuntza bezala. (Dilla eta García 2010). Sozializazioaren hasierako fasea familian ematen da oro har eta karga emozional handiko egoera batean ematen da gainontzeko adierazleenganako atxikimendurik izan gabe (Berger & Luckman, 2003 in Dilla eta García, 2010). Gainera, hauek

aipatzen dute niaren eraketa ez dela soilik sortzen beste pertsona batekin, baizik eta orokortasun batek eragiten duela, gizarteak. Sozializazio prozesuak erakusten digu soilik ez garela munduan bizi, baizik eta denok elkarreragina dugula denongan.

Horregatik da hain garrantzitsua sozializazio prozesuan haurren ondoan egotea laguntza eskaintzen eta sozializazio bide egokiak eskura jartzen. Haurren garapenarekin batera eraikitzen da haien sozializazioa eta haurtzaroko esperientziak bizitza osoan zehar eragina izango dute. Sozializazioa hasten denetik identitate kulturalaren kontzientzia bat garatzen goaz eta hau bakarkako zein taldeko onarpenean eta bazterketan oinarritzen da (Berger & Luckman, 2003 in Dilla eta García 2010).

Talde kohesioaz eta giro sozialaz hitz egitean garrantzitsua da jakitea, taldekide guztien ekintzak eta pertzepzioak direla hau eratzen dutenak. Honez gain, talde kohesioan eragiten duten hainbat eragile daude: interakzio sozio-komunikatiboak, ekintza hezitzaileak antolatzeke era, helburuak eta baliabideen arteko koherentzia, pertsonen arteko harremana taldean zein kanpoan eta lidergoaren rola besteak beste (Anderson, 1982; Medina, 1997 in Romero eta Caballero, 2008).

Lidergo rola aipatuz, lider autoritario rola da ikusiko dena lan honetan eta hau ikaskuntza sozialetik ikasten da. Beste jarrera batzuek bezala, jarrera autoritarioaren genesisia gurasoekin, talde sozialekin, komunikabideekin, hezkuntza instituzioekin eta hauetatik eskuratzen den ikaskuntzarekin elkarloturik doa. Honez gain, aipatzen da rol autoritarioa eratzean arau sozialek garrantzia dutela, izan ere, rol hau ikasten duten pertsonak arauak apurtzen dituztenen kontrako jarrera agresiboa izaten dute eta jarrera hau justifikatzeko arau apurketa hori aitzakiatzat hartzen dute. Hala ere, aipatzen dute autoritarismo puntu honek berebiziko garrantzia hartzen duela gaztaroan (Altermeyer, 1993 in Marasca, 2013). Hortaz, garrantzitsua da haurtzaroan horrelako jarrerak detektatzea eta konpontzeko bideari ekitea.

3.5 JOLASA

Nabarmena da haurraren garapenean jolasak onura garrantzitsuak dituela, gainera haurren eskubide unibertsala da 1959tik hona. Jolasa adin guztietako haurren garapen fisiko, intelektual, afektibo, sozial, emozional eta moralerako ezinbestekoa da. Jolasaren bitartez haurrek hainbat gaitasun eta ezagutza eskuratzen dituzte. Honez gain, modu oso positiboan eragiten du garapen

psikomotorrean, kanpo munduari buruzko informazioa ematen du, genesi intelektuala sustatzen du eta norbanakoaren ezagutzan laguntzen du. Gainera, jolasa ezinbesteko bide bat da berdinen arteko interakzioan eta, batez ere, sentsazio, sentimendu, emozio eta bizi zikloan presente egongo diren desioak ezagutzea eragiten du (Herranz, 2013 in Gallardo eta Gallardo, 2018).

Urteetan zehar jolasari buruzko hainbat teoria eta esanahi eratu dira eta hauetako batzuk jaso dituzte Gallardok eta Gallardok (2018). Ondoren, egile hauek jasotako XX. mendeko teoria garrantzitsuenetariko batzuk azalduko dira:

- Pentsamenduaren estrukturaren bitartez jolasaren interpretazioaren teoria (Piaget, 1945): Piagetentzat haurraren garapenean jolasak hartzen dituen itxura desberdinak haurren egitura intelektualen eraldaketan ondorioak dira. Jolas mota nolabait egitura hauen isla da. Teorian, testuinguruaren edozein egokitzapenek, bi poloen arteko oreka suposatzen du. Piagetek eta Inhelelderrek (2007) jolasa 4 kategoriatan banatzen dituzte:
 - 1) Jarduera jolasak: hauek aldi sentsorio-motorean zehar ematen dira (0-2 urte) eta ekintzaren behar automatikoari erantzuten diote, haurra egoera berri batera egokitzeko izan dituen zailtasunak gainditzen dituenean, gozamen funtzionala izateko eskuratu dituen gaitasunak erabiltzen ditu. (De la Mora, 2004 in Gallardo, 2018).
 - 2) Jolas sinbolikoa: (dominatzailea da 2-3 eta 6-7 urte bitartean gertatzen da) haurrek 2 urte inguru dituztenean agertzen da eta objektuen erabilera sinbolikoagatik nabarmentzen da. Objektu hauek beste objektu batzuk irudikatzeko erabiltzen dira, errepresentazioak egiteko erabiltzen dira. Jolas mota honek 5 eta 6 urte bitartean izaten du bere goraldia eta 7 urte inguru dituztenean nagusi izateari uzten dio. (Abad eta Ruiz de Velasco, 2011 in Gallardo, 2018)
 - 3) Arau jolasak: jolas hauek haurrek 4 eta 7 urte inguru dituztenean agertzen dira haurraren testuinguru sozialaren arabera. Ekintzara elkar lotuak eta arau sinpleko jolasak izaten hasten dira eta arau konplexuagoak izaten amaitzen dute 12 urte inguru dituztenean. Kasu honetan ekintzak ez du berebiziko garrantzirik eta logika induktiboa eta deduktiboarekin, hipotesien eraketarekin, eta estrategia erabilerarekin lotzen dira (Montañés, 2003 in Gallardo, 2018). Jolas hauek arau multzo batez antolatuta daudelako nabarmentzen dira eta hauek jokalaria

guztiek errespetatu behar dituzte, honek kooperazioa eta aldi berean konpetentzia sortzen du (Delval, 1985 in Gallardo, 2018).

- 4) Eraikuntza jolasak: jolas mota hauek ez dute sekuentzia ebolutiboan etapa bat osatzen, nolabait trantsizio bide bat dira jolas desberdinen eta egokitze jarreraren artean (Montañés et al., 2000 in Gallardo, 2018). Jolas hauek lehenengo urtearen inguruan agertzen dira eta garapen estadio guztietan egoten dira presente. Jolas hauek ezinbestekoak dira haurraren garapen integralerako, izan ere, motrizitate fina eta begi-esku koordinazioa garatzen laguntzen dute, imajinazioa eta sormena sustatzen dute, eta atentzioa zein kontzentrazioa estimulatu dituzte.
- Jolasaren teoria soziokulturala, (Vygotsky, 1993): jolasa ordezeko prozesu bat dela aipatzen du, ezin gauzatzeko desira imajinarioa eta ilusiozkoa da. Imajinazioak haurraren lehen haurtzaroko kontzientzian falta den formakuntza osatzen duela diote. Vygotskyk uste du jolasean haurrak fikziozko egoera bat eratzen duela eta ez duela jolasean sinbolizatzen, baizik eta desirak asetzen dituela, emozioaren bitartez errealitatearen oinarritzko kategoriak pasaratzen ditu eta jolasaren jarraitzen du, araua atxikimenduan eraldatuz. Vygotskyren esanetan, jolasak haurraren garapenaren gertutasunezko zona bat eratzen du, honetan zehar, haurra beti dago bere adinetik gora. Jolasak berez joera ebolutibo desberdinak aurkezten dituen hainbat alderdi ditu eta horregatik garapen bide garrantzitsua da. Autore honek, jolasaren eta testuinguru sozialaren arteko erlazioa ezartzen du eta aipatzen du, jolasaren bitartez haurrak nagusien ekintzetan proiektatzen direla eta etorkizuneko paperak eta baloreak irudikatzen dituztela. Modu honetan, jolasa garapenaren aurretik kokatzen da eta honela haurrek partehartze sozialerako motibazioa, gaitasunak eta jarrerak eskuratzen dituzte. (Vygotsky, 2008 in Gallardo, 2018).

Erreferente klasikoek esandakoen berri eman ondoren, ikus dezagun gaur egungo autoritateek zer dioten gai honi buruz. Solís-ek (2018) hainbat aditu garaikideren jolasari buruzko definizio hauek azaltzen ditu.

- Jolas aktiboa haurren bizitzarako ezinbesteko osagai bat da eta horrek haurraren garapen fisikoan eta ongizate kognitibo, sozial eta emozionalean eragiten du (Ginsburg, 2007).

- Jolasa haurren bizitzako hasierako etapan garapen eta ikaskuntza egokia izateko ezinbestekoa da (García eta Llul, 2009).
- Jolastea ikasteko eta ezagutzaz jabetzeko modu bat da eta horrez gain elkarreragin soziala eta komunikatiboa hobetzen ditu (Delgado, 2011).

Hortaz, jolasak haurren bizitzetan duen garrantzia esanguratsua da. Mota askotariko jolasak daude eta antzerkiaren barruan jolas dramatikoak daude., Hauek izango dira lan honetan erabiliko ditugunak.

3.6 ANTZERKIA ETA JOLAS DRAMATIKOA

Ucar-ek dio (in Nuñez Cubero eta Del Rosario, 2007), antzerkia gertakari pertsonal bat dela, pertsonaren ezagutza, garapena eta hazkuntza pertsonalean laguntzeko aproposa delako. Honez gain, soziala ere badela dio, izan ere, antzerkiaren ekintza komunikazio ekintza bat da, non pertsona talde batek errealitate zehatz bat konpartitzen duen espazio eta momentu berean. Antzerkiak dituen ahalmenengatik, azken urteetan presentzia handiagoa hartu du eskola kurrikulumetako formakuntza eta programaketa planetan.

Jolas dramatikoak ulertzeko edo lantzeko modu desberdinak daude, hainbat adituk modu desberdinetan deskribatzen dute. Tejadok eta Romerok (2007) hainbat adituren hitzak elkartuta definizio bat eman diote jolas dramatikoari:

Dramatizazioak espazio zehatz batean gauzatutako pertsonaien irudikapenak dira (López Valero, Jerez eta Encabo, 2010). Hauek oro har berez sortzen dira (Paley, 2010) eta gure bizitza osoan zehar laguntzen digute. Hala ere, Baldwin eta Waltersekin (2010) bat eginez, beharrezkoa da modu sistematikoan eskola testuinguruan lantzea, antzezpenekin alderdi asko lantzen direlako (Cantos eta Ceballos, 2002); adibidez emozioen eta sentimenduen adierazpena, Ramirez Carmonak (2009) esaten duen moduan.

Isabel Tejerinak (in Álvarez-Uria et al., 2015) jolas dramatikoak eta dramatizazioak honela deskribatzen ditu: kontzeptu hauek antzerkia erreminta bezala modu ludikoan erabiltzen duten ekintzak dira, ekintza hauek norberarentzat egindakoak dira eta ez daukate kanpo proiektuorik.

Honekin guztiarekin ulertzen da antzerkia eta dramatizazioa ekintza sozialak direla eta, hortaz, sozializazioan lagungarriak direla. Honez gain, alderdi emozionalak lantzen dira eta hezkuntza formalean zein ez formalean erabiltzeko

lanabes ezin hobeak dira. Haurrek barnean dituzten emozioak azaleratzeko lagungarriak dira eta ludotekako kasuan prozesu honetan laguntzea ezinbestekoa da; denbora asko pasatzen dute bertan eta momentu askotan beraien barrenak askatzeko aukera ematen dien lekua da.

Bestetik, prozesu soziala izatean haurren sozializaziorako tresna egokia da: alde batetik, haur berriak ezagutzeko baliagarria da, eta beste alde batetik, haur lotsatieneke edo segurtasun falta dutenek beraien buruengan konfiantza izateko lanketa polita da.

3.7 JOLAS DRAMATIKOA HEZKUNTZAN

Ramirez Carmonak (2009) aipatzen du dramatizazioa eskolan haurrak ezagutzeko baliabide indartsu bat dela. Haurrei askatasunez adierazteko aukera ematen bazaie, beraien ikuspegiak transmitituko dizkigute, nola pentsatzen duten erakutsiko digute edota nola arrazoitzen duten, besteak beste. Honekin batera aipatzen du, haurrek besteengana iritsiko den sentimendu bat adierazteko gai izatea lortuz gero, dramatizazioaren definizio puruena lortuko dela: besteekin komunikatzea sentimendu bat adieraziz.

Idazle honek esaten duena Haur Hezkuntzara ekartzea izugarria izango litzateke. Izan ere, haurrek oraindik ez dakite adierazten barnean dutena (kasu askotan nagusiek ere ez) eta enpatia lantzeko baliabide polita da. Honen bitartez gatazken kudeaketa, elkar laguntza, talde izaera eta beste hainbat alderdi landu daitezke. Aniztasunaren onurak ere nabarmenak dira lanketa honetan, izan ere partehartzaileak zenbat eta anitzagoak izan, orduan eta anitzagoak izango dira ekarpenak.

Jolas dramatikoak adierazpen askatasuna, sormena eta jolasa batu behar ditu bere baitan eta hau guztia askatasun eta konfiantza eremu batean gauzatu, hala ere, bete beharreko arau batzuk izan behar ditu eta hauek haurrek adostu ditzakete (Ramirez Carmona, 2009).

Bercebal-ek (2011) adierazpenaren piramide bat proposatzen du hurrekin antzerkia eta dramatizazioa lantzeko. Piramide honen azpialdean, oinarrian, espazioa eta testuingurua aurkitzen dira. Bigarren posizioan talde kontzientzia dago, jarraian gorputz adierazpena eta honi jarraituz adierazpen dinamikoa. Piramidean gora eginez, bosgarren posizioan soinu adierazpena aurkitzen da, seigarrenean ahozotasuna eta amaitzeko, goiko mailan, espresio dramatikoak

modu globalizatuan. Piramide honetan oinarrituta egongo dira esku hartzean proposatzen diren jarduerak.

4 METODOA

4.1 TESTUINGURUA

Gipuzkoako Bergara herrian kokatuta dago Osintxu auzoa eta 400 biztanle inguru ditu. Mendiz inguratuta dagoen auzo bat da eta ludoteka landa eremu batean aurkitzen da, auzotik pixka bat desplazatua. Solairu bakarreko eraikin zahar batean dago, eraikina bi zatitan banatzen da, zati bat eskolarena da (gela desplazatua) eta beste zatia ludotekarena. Auzo txiki bat izanik, esan daiteke ludotekaren tamaina handia dela, izan ere, espazioa bi zati nagusitan banatzen da: psikomotrizitate gela eta erabilera anitzeko gela. Lehenengo honetan hainbat koltxoneta zein psikomotrizitaterako materiala dago eta pareta oso bat ispiluz josia dago. Erabilera anitzeko gela txokoka antolatuta dago; jolas sinbolikorako txokoa (sukaldetxoa, mozorroak, mahai eta aulki txikiak), mahai jolasen txokoa, eraikuntza eta animalien txokoa eta eskulanen txokoa. Nahiz eta horrela antolatuta egon, txoko hauek ekintza desberdinak egiteko erabiltzen dira, hala ere materiala txukun antolatuta izan ahal izateko horrela banatzen da gela. Honez gain, baliabide teknologikoak ere baditugu: erabilera anitzeko gelan proiektorea, ordenagailu bat (hezitzaileek erabiltzeko) eta musika ekipo portatila mikrofonoarekin daukagu. Azken hau, auzoan egiten ditugun ekintza asko alaitzeko erabiltzen dugu eta haurrei izugarri gustatzen zaie. Kanpoko espazioari dagokionez, belargunez inguratuta gaude, baina ludoteka eta belargunea banatzen duen hesi bat dago, belargunea jabetza pribatukoa omen delako. Hala ere, gure eremuan zati txiki bat daukagu non naturaz gozatzeko aukera ematen digun, gainontzeko espazioa porlanezko lurra da. Aipatu beharra dago, eskola eremuan dagoen sukaldea erabiltzeko aukera ere badaukagula eta sukaldaritza egiteko aukera izaten dugula. Amaitzeko, aipatu beharra dago ludotekako giltzak auzo batzordeak dituela, hortaz, auzotarrek hau erabiltzeko aukera daukate beste ekintza batzuetarako, adibidez, ludoteka ordua amaitzean yogako klaseak ematen dira bertan, edo noizean behin, haurrentzat ekitaldiren bat antolatzen dute asteburuan. Hau da, komunitarioa dela esan daiteke.

Ludotekako erabiltzaileei dagokionez, 3-12 urte bitarteko haurrak dira, baina 0-3 urte bitarteko haurrek beraien gurasoekin etortzeko aukera ere badute. Aurtengo ikasturtean 29 haurrek eman dute izena. Oso perfil anitzeko haurrak dira, bai izaera aldetik baita kultura zein jatorri aldetik ere. Haur guztiak Osintxun jaiotakoak dira, baina beraien gurasoak jatorri desberdinketakoak dira: euskaldunak, marokozarrak, argentinarrak, andaluziakoak... Oso aberasgarria da

aniztasun hau, izan ere, kultura desberdinetatik ikasteko aukera ematen digu. Honez gain, aniztasun fisikoa ere badago, beso bat faltan duen haur bat dago eta beste haur bat gorra dena. Honek ere, asko ikasteko aukera ematen digu: alde batetik, muga gehienak guk jartzen ditugula erakusten digu, izan ere, besoa faltan duen haurra 5 urterekin jada oso autonomoa da, eta bestetik haur gorrarekin komunikatzeko zeinu hizkuntza oso garrantzitsua dela erakusten digu, besteak beste. Haurren arteko harremanari dagokionez, orokorrean ona dela esan daiteke, hala ere, gatazka ugari sortzen dira batez ere materiala eta guneak erabiltzerako orduan. Haur nagusienak dira agintzen dutenak eta haur txikienak galtzen irteten dira hezitzaileok ez badugu esku hartzen. Bestetik, gehien kezkatzen nauena lider autoritarioaren rola da, izan ere horrelako haur batzuk daudelako eta gainontzeko haurrak oso esaneko bihurtzen dira hauen agindupean.

Amaitzeko, ludotekaren funtzionamendua azalduko dut. Ludoteka publikoa da, hau da, Bergarako udalarena, baina Jardun Euskara Elkarteko langileok kudeatzen dugu. Astelehenetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara egoten da zabalik eta haur guztiak nahi duten orduan sartu eta irteteko aukera daukate. Egunero ekintza bat izaten dugu prestatua, astean behin izan ezik jolas librea egiten dugulako. Ekintza horiek prestatuta izan arren, haurren erritmo eta nahietara moldatzen gara eta hauek aldatzeko askatasun guztiarekin egiten dugu lan, gainera, programaketa haurrekin batera eratzen dugu hilabete bukaeran. Ekintzak ahal den heinean kanpo espazioan eta auzoan bertan egitea gustatzen zaigu eguraldi ona egiten duen hilabeteetan.

Orokorrean askatasun handiko ludoteka bat da non haurren behar, interes eta nahietara egokitzen joaten garen egunero.

4.2 HELBURUAK

Jolas dramatikoaren bidez haurren arteko elkarbizitza hobetzea eta gatazkak murriztea izango da helburu nagusia. Horrekin batera, helburu espezifiko batzuk ere lortu nahi dira.

Haurren egunerokotasunean komunikazioa hobetzea eta bizikidetzarako estrategiak eskura ipintzea izango da landu nahi den xedeetako bat.

Aniztasun handiko ludoteka bat da Osintxukoa eta horrek batzuetan gatazkak sortzen ditu, horregatik aniztasunaren alde positiboak ikusaraztea eta sentiaraztea izango litzateke beste helburu bat.

Osintxu auzoan ludoteka garrantzi handia duen eremu bat da, izan ere, haurrak egoteko elkargunea izateaz gain beraien arnasmunea delako. Aisialdi gune bat baino gehiago da, bertan egun osoan zehar izandako arazoak edo gatazkak azalartzen dira, hori dela eta, familia txiki bat dela esan daiteke. Hortaz, hau mantentzea eta hobetzea da azken helburua.

4.3 PROZEDURA

Jakinik ludotekan 3-12 urte bitarteko haurrak elkartzen direla egunero eta gatazka ugari sortzen direla, batez ere botere harremanengatik, haur batzuekin hitz egin zen haien arteko harremanen gorabeheri buruzko informazioa eskuratzeko asmoz. Elkarrizketa informal horretan haurrek beraien kezka eta haserreak azalartu zituzten, gehiengoak haur nagusien jarrera eta jokaerengatik kexatzen ziren esanez beti beraien agintzen dutela, hau da, boterea haur nagusienek daukatela eta ez dietela erabakitzen uzten hainbat jolasetan. Hortaz, lanaren ildo ludotekako haurren arteko elkarbizitza hobetzea eta gatazka maiztasuna gutxitzea da.

Behin gaia aukeratuta, marko teorikoa eratzeko eta gaian sakontzeko informazio bilketa bat hasi da. Horretarako hainbat liburu eta artikuluren bilaketari ekin zaio eta hainbat autore eta teoria ezagutu dira.

Lan honetan, haurren iritziak oso garrantzitsuak izango dira, baina baita gurasoen eta hezitzaileen iritziak ere. Hortaz, ahalik eta informazio sakonena eta aberatsena lortzeko asmoz, gurasoekin harremanetan jartzea erabaki da eta haiei galdetegi bat luzatzea. Horrez gain, haurrak behatzeko taula bat ere eratu da, eta horrekin guztiarekin informazio zehatza zein globalizatua lortzeko aukera egon da.

Marko teorikoa eta informazio bilketa bideratu ondoren, saio praktikoen prestaketa egin da. Bost saio prestatu dira eta bakoitzean gai bat landu da jolas dramatikoaren bidez. Saio bakoitzaren amaieran saioari buruzko informazio guztia jaso da eguneroko batean eta horrek ondorioak ikusteko eta hausnartzeko aukera eman du.

Behin saioak bukatuta, hobekuntza proposamenak formulatu dira. Horri esker, hausnarketa egin eta ondorengo ikaskuntza-irakaskuntza doitu eta akatsak antzeman ahal izan dira.

4.4 PARTAIDEAK

Aurrez aipatu bezala lan honetan oso garrantzitsua izango da haurren, gurasoen eta hezitzailearen parte-hartzea. Izan ere, auzo horretako partaide aktiboak diren pertsona multzo bat dira denak eta haurra inguratzen duten gertuko pertsonak dira, nolabait, auzoko ikas-komunitatea.

Lan honetan parte hartu duten haurrak 3-12 urte bitartekoak dira, baina atentzio berezia jarriko zaie 3-6 urte bitarteko haurrei, lan hau baita Haur Hezkuntzako etaparako sortutako eskuhartzea (ludotekara ez da HHko lehen zikloko haurrik hurbiltzen). Adin horretako zazpi haur daude ludotekan, baina ezin da ziurtatu ekintza egunetan guztiak etorriko direnik, gonbidapena luzatu diet beti gurasoei, baina familia bakoitzaren egoera desberdina denez, ezin da ezer ziurtatu.

Lehen Hezkuntzako haurrei dagokienez, 20 haur inguruk dute izena emanda ludotekan eta egunaren arabera gehiago edo gutxiago egoten dira. Hala ere, denak ez dira animatzen ekintzetan parte hartzera, hortaz, guztira taldea 10-12 haur ingurukoa izango da.

4.5 TRESNAK

Informazioa jasotzeko lehenik eta behin ahozko elkarrizketa bat erabili da haurren iritziak jasotzeko asmoz. Elkarrizketa grabatua izan da ahalik eta informazio gehiena ateratzeko. Tresna honek haurren iritziak modu zuzenean eta objektiboan jasotzeko aukera eman dit, izan ere, haurrekin aurrez aurre, banaka zein taldeka galderak egiteko aukera eman dit. Gainera, ematen zizkidaten erantzunen arabera galdera sakonagoak egiteko aukera izan dut.

Era berean, gurasoentzako galdetegi bat egin da *Google* eskaintzen duen *GoogleForms*-en bitartez eta hau mugikorreko *Whatsapp* aplikazioaren bidez bidali da. Galdetegi honekin haurren eta gurasoen asebetetze maila eta haurren harreman sarea ezagutu nahi izan da. Modu anonimoan egin denez, gurasoek askatasun gehiagorekin erantzuteko aukera izan dute eta honek erantzun zintzoagoak emateko aukera eman die. Honez gain, informazioa modu azkarrean eta egituratuan jasotzeko aukera eman dit. (ikusi 6.2 atalean).

Gurasoen iritziaz gain, hezitzailearen behaketarako baliagarria izango den behaketa taula bat osatu da. Taula honetan aniztasuna, gatazkak, elkarbizitza eta harreman sareak hartu dira ardatz bezala, izan ere, hainbat balio eta gai desberdin behatzeko aukera ematen dute Tresna honek, behaketa sakonagoa egiteko eta

informazioa modu koherentean eta antolatuan jasotzeko aukera ematen du (ikusi 6.3 atalean).

5 EMAITZAK

Amaitzeko, saio bakoitza bukatu ostean eguneroko bat egin da egunean behatutako eta gertatutako gauza guztiak batuz. Eguneroko honek hausnarketan eta hobekuntza proposamenetan bete-betean lagunduko du. Oso baliagarria den tresna bat da, izan ere saioetan zehar gertatutako guztia jasotzen du eta, esan bezala, hausnarketarako oso lagungarria da (ikus 4.4. atalean). EMAITZAK

Emaitzen atal hau, azpi atal desberdinetan banatuko da. Hau da, erabilitako tresna bakoitzaren emaitzen atalak egongo dira eta ondoren atal orokor bat egongo da.

5.1 HAURREKIN EGINDAKO ELKARRIZKETA

Hau izan da erabili dudan lehenengo tresna. Arratsalde batean Haur Hezkuntzako haurrak hartu nituen eta zeharkako asanblea txiki bat egin genuen. Bertan beraiekin hitz egiten hasi nintzen, zer moduz zeuden galdetu nien, egun horretan eskola zein ikastolan egindakoaz galdetu nien eta lotsa galtzen joan zirenean ludotekako galderak egiten hasi nintzen: zer moduz pasatzen duten, ia lagunik daukaten bertan, zein den beraien txokorik gustukoena, zer moduz moldatzen diren nagusiekin...

Guztiak gustura zeudela adierazi zidaten, psikomotrizitate gela asko gustatzen zitzaie esan zidaten, eta antzerkiak egitea ere gustuko zutela. Antzerkiarekin lotuta aipatu zuten nagusienek beti aginduak ematen dizkietela eta ez dietela uzten jolasten, beraien iritziak ez dituztela kontutan izaten. Orduan galdetu nien ea egun horretan antzerki txiki bat egingo genuen eta beraiek izango zirela agintzen zutenak, haur guztiek baietz esan zuten eta martxan jarri ginen mozorroak prestatzen, etab. Gutxika haur nagusiak hasi ziren batzen eta txikiak hauek gerturatu bezain pronto argi uzten zieten beraiek zirela egun horretako agintariak. Azkenean, txikienak jolasean hasi ziren eta mozorrotuta jolasak egin genituen. Momentu polita izan zen, txikienei ahotsa eman nien eta asko daukate esateko.


5.2 GURASOEI EGINDAKO GALDETEGIA

Ondoren gurasoei egindako galdetegiaren emaitzak agertuko dira modu grafikoan. Galdetegia 9 familiek erantzun dute eta hauetako batzuek ludotekara etortzen diren bi haur dituzte.

Lehenengo galdera:

Haurra zein maiztasunarekin dator ludotekara?

9 respuestas




Lehenengo galdera honetan argi ikusten da haurrak ludotekara maiztasun handiarekin etortzen direla, ia egunero (asteko bost egunetatik 3tik 5era). Honek esan nahi du bertako haurrekin eta hezitzaileekin astero ordu asko pasatzen dituztela, haurrak arratsaldeko 17:00etan iristen dira eskolatik eta merienda hartu eta segituan etortzen dira ludotekara 19:30ak edo 20:00ak arte. Auzoan beraien aisialdi gunea ludoteka da, batez ere neguan, ez baitago frontoiaz gain aisialdirako beste tokirik. Ludoteka auzoko haurrentzako aisialdi eta elkargune erreferente bat da eta auzotarrek, guraso zein ez gurasoek garrantzi handia ematen diote honi.

Bigarren galdera

Haurra ludotekara pozik datorrela esango zenuke?



9 respuestas




Bigarren galdera honetan argi ikusten da haurrak pozik etortzen direla ludotekara, honek adierazten dit gatazkak egon arren, hasiera batean badirudiela egunerokotasunean sortzen diren gatazkak direla eta ez direla haratago josten. Hau da, haurrek nahiz eta noizean behin gatazkak izan ludotekara gustura etortzen direla.

Hirugarren galdera

Ludotekara joatea eskatzen dizu?

9 respuestas




Galdera honek garrantzi berezia du, izan ere, haurrak ludotekara beraiek nahi dutelako etortzea edo gurasoek nahi dutelako etortzea oso desberdina da. Erantzunek adierazten dute haurrek eskatzen dutela ludotekara etortzea eta horrekin argi ikusten da benetako aisialdia dela beraientzat bertan izaten dutena. Kasu askotan ludotekara derrigorrez joan behar dira gurasoak lanean daudelako, edo beste arrazoi batzuegatik, baina kasu honetan argi dago ludotekara etortzearen arrazoia aisialdia dela.

Laugarren galdera

Ludotekan egindako gauzak kontatzen ditu etxean?

9 respuestas




Galdera honekin etxean ludotekan egindako ekintzak kontatzen dituzten jakin nahi nuen, gehienek aipatzen dute beti kontatzen dutela eta beste batzuek batzuetan. Hortaz, etxean jakinean daude egiten ditugun ekintzaz. Nahiz eta laurden batek haien bizipenak erdizka edo beti kontatzen ez dituztela dirudien.

Bosgarren galdera

Egiten ditugun ekintzak gustatzen zaizkiola esango zenuke?



9 respuestas




Galdera honekin haurren interesetako eta gustuetako ekintzak egiten diren ala ez jakin nahi nuen. Hilabeteko programaketa beti haurren interesen arabera sortzen da, beraien iritziak eta nahiak kontuan hartzen ditugu eta horren arabera ekintzak proposatzen ditugu. Hala ere, kasu askotan ez dituzte beraien interesak adierazten eta orduan ez dakit gustukoa izaten den ala ez proposatutako jarduera. Galdera honekin ikus daiteke haurren gustukoak direla ekintzak eta hori ezinbestekoa iruditzen zait.

Seigarren galdera

Ludotekan izandako gatazkak kontaktzen ditu etxean?



8 respuestas




Berebiziko garrantzia ematen diot galdera honi, egia esan haur gehienak ludotekan bertan izaten dituzten gatazkak momentuan kontaktzen dizkidate, ia beti hauek konpontzeko laguntza eske etortzen direlako. Etxean izandako gatazkak kontatzeari garrantzia ematen diot, beraien emozioak azaleratzeko gaitasun hori

izatea oso positiboa delako. Galderan erantzun nahiko desberdinak daude, hala ere, gehiengoak adierazten du kontaktzen dituztela.

Zazpigarren galdera

Hezitzaileekin ondo moldatzen dela esango zenuke?

9 respuestas




Hezitzaileekin ondo moldatzea ezinbestekoa ikusten dut lanbide honetan, erreferenteak izan behar dugu, baina batez ere konfiantza eta laguntza eskaintzen dieten pertsonak izan behar dugu. Guraso guztiek adierazi dute hezitzailearekin ondo moldatzen direla eta niretzako oso pozgarria izan da informazio hau.

Zortzigarren galdera

Ludotekako ekintzetan parte hartzera gonbidatzen zaitu?

9 respuestas



Gurasoekin elkarlanean aritzea ezinbestekoa iruditzen zait haurren ongizaterako eta galdera honekin jakin nahi nuen ea hurrek gurasoak


gonbidatzen dituzten parte hartzera. Urtean zehar ekintza batzuk antolatzen ditugu gurasoekin egiteko eta, oro har, haurrek bai gonbidatzen dituzte.

Bederatzigarren galdera

Ludotekako ekintzekin pozik zaudete gurasoak?



9 respuestas



Garrantzitsua da ekintzen inguruko gurasoen asebetetze maila ezagutzea, izan ere gauzak aldatzeko beharra ikusiz gero beraien iritziak lagungarriak direlako. Kasu honetan oso gustura daude ekintzekin, hortaz, pozgarria da.

Hamargarren galdera

Zerbait aipatu nahiko zenuke?

4 respuestas

Ludotekako hezitzaileen lana bikaina da.

Plazan egiten dituzuen ekintzek, auzoari bizi pixkat ematen diote. Haurrak oso gustora joaten dira, hezitzaileekin gustura dauden seinale, segi horrela!

Oso pozik gaude ludotekarekin orrokorrean

Hezitzaileak oso ondo haritu dira.

Galdera honekin gurasoei askatasuna eskaini nahi nien edozein iradokizun egin ahal izateko, kasu honetan hezitzaileon papera goraiatzen dute, oso pozgarria da niretzako, baina ikaskuntza zerbitzuarekin bete betean datorren iradokizun bat egin dute. Plazan egiten ditugun ekintzak auzoari bizia ematen diotela aipatzen dute, oso garrantzitsua da hau, aurrez aipatu bezala ludoteka auzoarengan eragina du eta bertan lantzen duguna auzoari onurak ekarriko dizkio.

5.3 BEHAKETA TAULA

Behaketa taulan hainbat datu interesgarri jaso ditut, gehien kezkatzen nauena da haur batzuk momentu batzuetan baztertuta gelditzen direla. Lehen Hezkuntzako haurretan lider rola duen haur bat dago eta honek agintzen duena egiten da, bai jolas mota aukeratzeko orduan baita jolasaren arauak adosterako orduan ere. Urteak daramatzat rol hauek apaltzeko nahian, baina oso zaila egiten zait, izan ere haur guztiek oso barneratuta daukate. Asko nabaritzen da hutsunea eta giro aldaketa haur hori ez dagoen egunetan, izan ere, gainontzeko taldekideak rol hori betetzeko lehian hasten dira.

Taldekatzeeekin jarraituz, normalean haur nagusienak talde handiagotan elkartzen dira eta txikienak berriz independenteagoak dira. Txikitxoan artean badago lider rola hartzen hasten dabilen ume bat eta hauekin ere lanketa egiten gabilta. Egian esan azken denboraldian txikien taldekatzeko batzuk aldatzen hasi dira, haur batzuk nire inguruan ibiltzen dira asko eta ekintza desberdin asko burutzen ditugu eta beste haur batzuk harremana eratzen hasi dira beraien artean. Hala ere, Haur Hezkuntzako bi haur detektatu ditut baztertuak gelditzen direnak eta honekin ere lanketa egiten hasia nago.

Elkarbizitzari dagokionez, azken boladan gauzak pixka bat lasaitu direla somatu dut. Gatazkak egoten dira, baina normalean segituan konpontzen dituzte. Gatazkak gehienetan jolas arauetan desadostasuna egoteagatik edo materiala konpartitzeagatik izaten dira eta beti nire laguntza eskatzen dute hauek konpontzeko. Gatazkak daudenean Haur Hezkuntzakoek askoz hobeto enpatizatzen dute Lehen Hezkuntzakoek baino, eta beraiekin hitz egitea askoz errazagoa izaten da, gauzak ulertzeko prestutasuna adierazten dutelako. Hala ere, materiala konpartitzeagatik denean txikienei gehiago kostatzen zaie ulertzea ludotekako materiala denena dela eta konpartitzen saiatu behar garela. Orokorrean haur txikienek ez dute errespetu faltarik izaten gatazkak daudenean, baina Lehen Hezkuntzakoek bai, oihu asko egiten dute eta kasu askotan hitz zatarrak esaten dizkiote elkarri. Zorionez oso arraroa da biolentziaz jokatzeko. Niregana errespetuz zuzentzen dira eta ez da ohikoa oihu egitea, etab. Soilik lider rola hartzen duen haurra haserretzen denean ludotekatik joan egiten da, baina hurrengo egunean barkamena eskatzen dit eta gauzak lasai hitz egiten ditugu, izan ere, gurasoek ondo ezagutzen dute eta segituan nabaritzen dute zerbait gertatu dela eta nirekin jartzen dira kontaktuan gauzak konpontzeko.

Amaitzeko atal honekin, aniztasunaren trataera ere behatu dut, eta zorionez auzo hau oso anitza da zentzu guztietan. Haurrak oso ohituta daude auzora herrialde desberdinetako eta kultura desberdinetako haur berriak heltzera eta beti daude hauek ezagutzeko irrikaz, oso haur irekiak dira zentzu horretan, eta haur berriak beso zabalik hartzen dituzte. Esan beharra dago, auzo osoak duela filosofia hori eta bertako guraso gehienak beti daudela edonori laguntzeko prest. Honez gain, beso bat faltan duen haur bat daukagu gurekin eta ez dut inoiz somatu haur hau arrazoi horregatik baztertua izan denik, edo ez dut inoiz hitz zatar bat entzun bere egoera fisikoagatik.

5.4 EGUNEROKOA

Tresna hau saioetan zehar gertatutako guztiak batzea eta ondorioak ateratzea ahalbidetu dit. Saioetan zehar haurren interesak ikusteko aukera izan dut. Oro har musika duten jolasek eta antzerkia darabiltenak dira gehien gustatu zaizkienak.

Rolei dagokienez, nabarmen ikusi da nagusienek berez agintzeko gaitasuna dutela, kasu askotan aginduak modu goxoan ematen dizkiete, beraiek gurasoak izango balira bezala eta gainontzekoak beraien haurrak. Hala ere, beraien aginduak betetzen ez dituztenean oihuak hasten dira eta gauzak okertzen dira.

Bestetik, gatazkak ebazteko egin ditugun ekintzak enpatizatzeke baliagarriak izan direla eta haurrengan eragina izan dutela uste dut, nahiz eta parte hartzea ez izan oso altua.

6 ESKU HARTZEA

Esku hartzea bost saio dinamikotan banatu da. Saio bakoitzean gai bat landu da Bercebalen (2001) adierazpenaren piramideari jarraituz: espazioaren lanketa, taldea, gorputza eta mugimendua, ahotsa eta soinua, dramatizazioa eta antzerkia. Aurreikusita zegoen bi orduko bost saio izatea, baina COVID-19 gaitzak sortutako alarma egoera dela eta, lehenengo saioa bi ordukoa izan da eta gainontzekoak ordu eta erdi ingurukoak, egun bakoitzean bi saio eginez. Guzti hau ludotekaren itxieragatik egin behar izan da horrela, saioak egin beharreko astean alarma egoera ezartzen hasi zen eta guztia moldatu behar izan zen ludoteka itxi aurretik saioak burutu ahal izateko. Haur kopurua 10 ingurukoa izango da, ludoteka bat izatean gerta daiteke espero diren haurrak ez etortzea edo espero direnak baino gehiago etortzea.

Saio guztiak hasteko haurrak eta ni borobil batean eseri gara eta asanblada txiki bat sortu dugu. Bertan egin dugunaren azalpen txiki bat eman diet eta beraiei zerbait kontatzeko aukera eman diet, askotan horrelako momentuetan barnean daukaten edozein gauza askatzeko aprobetxatzen dutelako. Amaitzeko beste asanblada txiki bat egin dugu eta zer moduz sentitu diren eta zer moduz pasatu duten galdetu diet.

6.1 1.SAIOA: Espazioaren lanketa

Lehenengo ariketa "Ura, lurra eta zerua" jolasa da. Guztiok lerroan jarri gara eta momentu horretan "lurra" ukitzen egon gara, pauso bat aurrera ematean zerua ukitzen egon gara eta pauso bat atzera ematean ura ukitzen egon gara. Pertsona batek lurra, ura edo zerua esango du eta orduan pausoak aurrera edo atzera eman beharko ditugu, horrekin koordinazioa, espazioaren kokapena eta kontzentrazioa landu ditugu.

Hurrengo ariketa, ludotekan daukagun psikomotrizitate gunean burutu dugu. Kasuistika desberdinak proposatu dizkiet, adibidez: "etxe txiki batean logela bat sortu behar duzue, nola egingo zenukete bertan daukagun materialekin?". Edo, "sortu jatetxe bat bertan daukagun materialekin". Horrekin espazioaren antolaketa eta sormena landu ditugu, eta garrantzitsuena dena ere, talde lana.

6.2 2.SAIOA: Taldea

Saio honetan gatazken kudeaketa landu dugu, horretarako enpatia landuko dugu. Hau da, besteen azalean jartzearen eta bestearen egia entzutearen garrantziaz jabetzen saiatu gara. Hasteko, taldekatze jolas bat egin dugu, hau da, gelatik zehar ibili gara, ondoren taldekatze zenbaki bat esan dut eta taldeka elkartu dira. Honekin lotsa pixka bat kendu dugu eta noizean behin talderik gabe gelditzean zer sentitzen den esperimendatu dute.

Ariketa nagusia Augusto Boalen teknika batean oinarrituko da, teknika honek *teatro foro* izena du (Chesney-Lawrence, 2013). Egunerokotasunean ludotekan sortzen den gatazka bat aurkeztu diet eta ondoren haur batzuek gatazka hori antzeztu dute. Antzeztu ondoren edo antzezten zeudela, ikusleak eskua altxatuta antzerkian parte har zezaketen, adibidez konponbidea aurkitzeko, modu horretan antzezle bihurtu zitezkeen.

Amaitzeko korapiloaren jolasa egin dugu, kasu honetan talde izaera indartzeko eta gertutasuna sentitzeko. Jolas honen dinamika honako hau da: guztiok eskuetatik heldu dira bi pertsona izan ezik eta korapilo bat sortu dute, ondoren hau askatzen saiatu dira solte dauden bi pertsonak.

6.3 3. SAIOA: Gorputza, mugimendua

Saio honetan gorputz adierazpena, mugimendua eta lotsa landu ditugu. Horretarako musika erabili dut hainbat ariketa egiteko. Hauek izango dira ariketak:

-Hasteko gorputza esnatu dugu, gutxika gorputz atal desberdinak mugitzen joan gara. Mugimendu gidatuak izango dira eta honetarako musika lasaia jarri dut, musika instrumentala.

-Ispiluaren jolasa egin dugu binaka (bikoteak aldatuz joan gara). Hasieran gorputz mugimenduak imitatu dira eta ondoren aurpegiak eta bestelako mugimenduak. Aurpegiaren keinuak imitatzean emozioak irudikatu ditugu. Ekintza hau egiteko *Goazen* taldearen abesti desberdinak jarri ditut.

-Txotxongiloaren jolasa egin dugu binaka (txotxongilo bat izango bagina bezala jokatu dugu, eta gure bikoteak soketatik tira eginez mugitu gaitu). Ekintza hau musikarik gabe egin dugu.

- Amaitzeko, "Lehoi baten bila noa" kantu-jolasa egin dugu.

6.4 4.SAIOA: Ahotsa eta soinua

Saio honetan bi alderdi landu ditugu, ahotsaren kasuan honen erabilera desberdinen inguruko garrantziaz jabetu gara, hau da, ahotsaren tonua eta intentsitatearen arabera gure pertzepzioa aldatzen dela ikusi dugu. Hau erabili dut konturatzeko gatazken aurrean edo harremanen aurrean gure ahots tonuak nolako eragin positiboa edo negatiboa izaten duen azaltzeko. Horretarako, hainbat adibide aurkeztu dizkiet:

-Zu! ekarri arkatx bat oraintxe bertan! (oihu eginez)

-Neskatila (kar kar kar) hamiseta zikindu duzu (kar kar kar) (barre eginez.)

-Jaso jostailuak (baxu hitz eginez)

Soinuaren kasuan, hainbat elementu eman dizkiet (txintzarriak, makilak, botila, arroza...) eta mikroipuin herrikoi bat kontatu diet. Bakoitzak istorio horretako zatitxo bat musikatu du eta horretarako nik emandako materiala edo momentuan burura etortzen zaion materiala eta norberaren ahotsa zein gorputza erabiliz egin dugu. Hau da, istorio musikal labur bat sortu dugu. Hau da mikroipaina, Ttiklik elkargunetik eskuratua:

Baziren behin bi ume ur izoztuaren gainean patinetan zebiltzala. Arratsalde euritsu eta lainotsua zen, baina haurrek kezkarik gabe jolasten zuten.

Bat-batean, izotza puskatu eta haurretako bat uretara erori zen. Beste haurrak, uretara erori zena itoko zela ikusita, harri bat hartu eta izotzari kolpeka hasi zen, izotza puskatu eta bere laguna atera zuen arte.

Suhiltzaileak iristean eta gertatutakoa ikusi zutenean, zera galdetu zuten:

- Nola egin du? Izotza oso lodi dago, ezinezkoa da harri horrekin eta hain esku txikiekin puskatu izana!

Une horretan agure bat agertu eta esan zuen:

- "Nik badakit nola lortu duen"...

- "Nola?". Galdetu zioten agureari. Eta honek erantzun:

- "ETZEGOEN BERE ONDOAN INOR EZINGO ZUELA EGIN ESANGO ZIONIK".

6.5 5.SAIOA: Dramatizazioa eta antzerkia

Saio honetako lehen ariketa, lotsa pixka bat kentzeko eta sormena lantzeko izan da. Objektu desberdinak eman dizkiet eta erabilera bat asmatu behar izan dute, ondoren, objektu horren erabilera berria antzeztu behar izan dute. Adibidez: erratz bat eman diet eta zaldi bat dela imajinatu dute, hortaz, zaldi gainean doazela antzeztu dute.

Ariketa hau egin ostean, guztion artean istorio txiki bat asmatu dugu antzeztu dugunarekin. Istorioa labur-labur idatzi dugu eta atrezzoak aukeratu dugu. Ondoren gure istorioa, gure objektu imajinarioen laguntzaz antzeztu dugu.

7 HOBETU BEHARREKOAK

Egindako saioetan hobetu beharreko nabarmenena uste dut denbora izan dela, COVID-19 gaitza dela eta saioak modu oso azkarrean burutu behar izan ditut eta ezin izan dut prestatuta nuen guztia burutu. Hala ere, ezusteko honez gain uste dut etekin handia ateratzeko aukera daukadala. Ikasturte osoan zehar burutzen baldin baditut jolas dramatikoak, gatazkak eta elkarbizitza hobetzeko aukerak handituko dira. Haurrei baliabide desberdinak eskaintzea eta hauek aplikatzen erakustea oso modu polita eta autonomoa iruditzen zait biharko egunean beraien segurtasuna eta autoestimua hobetzeko eta, nola ez, gatazkak kudeatzeko. Hortaz, erabaki dut datorren kurtsoan lanketa hauek egingo ditudala denbora luzeagoan.

Bestetik, ludotekan 3-12 urte bitarteko haurrak daude eta adin desberdinek behar desberdinak dituzte, hortaz, pixka bat zaila izan da guztien beharretara heltzea saioetan. Nire intentzioa soilik Haur Hezkuntzako hurrekin egitea zen hasieran, baina ezinezkoa egiten zait, nire lanean adin tarte askoz zabalagoa sartzen delako. Agian, saioak prestatzerako orduan presenteago izan behar nituen adinak eta saioak hobeto moldatu guztientzat, hala ere, haurrak oso gustura egon dira eta sortu den harremana polita izan da.

Haurren interesei jarraituz, adierazi zidaten gogoia zeukatela antzerki bat egiteko eta zeharka antzerki bat sortzen hasi ginen prestatutako saioez gain. *Buruko hura norik egin zion jakin nahi zuen satortxo*a ipuina hartuta antzezlan bat prestatu nuen eta haur bakoitzari bere pertsonaia banatu nion, oso polita izan zen sortutako giroa, entseguak egiten hasi ginen eta gainera gorra den haur bat daukagunez, berak zeinu hizkuntzan kontatzen zuen istorioa.

Amaitzeko, arlo pertsonaletik begiratu oso-oso baliagarria izan zait lan hau, alde batetik nire laneko haurrak hobeto ezagutzeko, haiekin gozatzeko, ludotekaren garrantziaz jabetzeko, eta hezitzaile bezala hobetu beharrekoak ikusteko. Baina hezkuntza arloan iruditzen zait agian beste testuinguru batean egin beharko nituzkeela saioak, Haur Hezkuntzako gela batean adibidez, beste denbora eta beste espazio batzuekin.

Hala ere, ez naiz damutzen egindako aukeraketaz, oso baliagarria izan zait eta espero dut haurrentzat ere baliagarria eta onuragarria izan izana.

8 HAUSNARKETA

Orokorrean zaila egin zait lan hau aurrera eramatea, hasieran asko kostatu zitzaidan lanaren nondik norakoak antolatzea eta hauek ondo ulertzea. Etengabeko ikaskuntza prozesu bat izan da, badirudi gutxika pieza desberdinak aurkitzen joan naizela puzzlea osatzeko eta agian gehiegi kostatu zait pieza guztiak aurkitzea. Eskerrak nire tutoreari momentu oro laguntzeko prest azaldu delako eta sekulako pazientzia izan duelako nirekin bide honetan. Bestetik, COVID-19ak asko eragin dit animikoki eta horrek alor akademikoan izan du eragina, baina are eragin zuzenagoa izan du aurreikusita nituen ekintzetan, ludotekaren itxierak ekintzak modu azkarragoan eta desberdinean egitera behartu didalako. Hala ere, zailtasunak gaindituta lana aurrera ateratzeko gai izan naiz eta horregatik pena merezi izan du esfortzuak.

Lanaren prozesuan zehar ludotekako erabiltzaileekin gertutasun gehiago lortzeko aukera izan dut, 4 urte daramatzat ludotekan lanean eta harreman oso estua daukat bai haurrekin baita guraso zein auzotarrekin ere eta lan honek haiengana gehiago hurbiltzeko aukera eman dit. Haurrak modu kontzientean behatzeko baliagarria izan zait lana eta baita haien arteko elkarbizitza hobetzeko estrategiak eskuratzeko ere. Niretzako lan hau ez da hemen gelditzen, nire ogibidea da ludotekako hezitzailea izatea eta prozesu hau lan honekin hasi besterik ez da egin. Datorren ikasturteari begira jolas dramatikoak elkarbizitza hobetzeko baliabide gisa erabiltzen jarraitu nahi dut eta ahal izanez gero, urte osoko lanketa bat egingo dut, modu informalean baina eraginkorrean. Ikaskuntza zerbitzua ezagutzean argi ikusi nuen etekin handia aterako niola ludotekan, izan ere, aurrez hainbatetan aipatu dudana bezala, Osintxuko auzotarrak familia txiki bat bezala dira eta ludotekan gertatzen dena eragina dauka guztiongan. Hortaz, uste dut ludotekatik hasita auzoari onurak ekartzeko aukera izango dugula.

Esan dezaket lan honekin profesionalki hazi naizela eta ikasitakoa nire ogibidean zerbitzu hobetua eskaintzeko erabiliko dudala.

9 BIBLIOGRAFIA

- 263/2015 Dekretu abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria.
- Álvarez Castillo, J.L., Martínez Usarralde, M.J., González González, H. eta Buenestado Fernández, M. (2016). El aprendizaje-servicio en la formación del profesorado de las universidades españolas. *Revista Española de pedagogía*, 75 (267), 199-217.
- Álvarez Uria, A., Tresseras, A., Zelaieta, E. eta Vizcarra, M.T. (2015). Juego, teatro y educación infantil. La obra teatral Kubik y su valor pedagógico. *Enseñanza e teaching*, 33, 143-161.
- Bercebal, Fernando. (2001). El taller de teatro. Optativa ESO. Ciudad Real: Ñaque.
- Chalmers, D. (2010). *Teatro 3-6 Guía práctica para enseñar teatro a niños y niñas de infantil*. Barcelona. Graó.
- Chesney-Lawrence, L. (2013). Las teorías dramáticas de Augusto Boal. *Revista Teatro*, 26, 26-55.
- Cubero Núñez, L. eta Navarro Solano, M.R. (2007). Dramatización y educación: aspectos teóricos. *Teoría de la educación*, 19, 225-252.
- Delgado Carrasco, M.E. (2011). La dramatización, recurso didáctico en educación infantil. *Pedagogía magna*, 11, 382-392.
- Dilla Mieles, M. eta García, M.C. (2010). Apuntes sobre socialización infantil y construcción de identidad en ambientes multiculturales. *Revista Latinoamericana de ciencias sociales, niñez y juventud*, 8, 809-819.
- Gallardo López, J.A. eta Gallardo Vázquez, P. 2018. Teorías sobre el juego y su importancia como recurso educativo para el desarrollo integral infantil. *Hecademos*, 24, 41-51.
- Marasca, M.M., Marasca, R. eta Imhoff, D. 2013. Indagación del autoritarismo en la infancia; vinculaciones con la orientación de dominancia social y los valores en niños y niñas de la ciudad de Córdoba (Argentina). *Indagación*, 30, 1, 139-161.
- Mendia Gallardo, R. (2012). El Aprendizaje-Servicio como una estrategia inclusiva para superar las barreras al aprendizaje y a la participación. *Educación inclusiva*, 5, 71-82.

- Monroy Antón, A. eta Sáez Rodríguez, G. (2011). Concepto y tipos de ludotecas. *Educación física y deportes revista digital*, 161.
- Romero Izarra, G. eta Caballero González, A.(2008). Convivencia, clima de aula y filosofía para niños. *Revista electrónica Interuniversitaria de Formación del Profesorado.*, 3, 28-36.
- Soler-Rocha , A.F. (2015). La ludoteca como espacio de entretenimiento y aprendizaje. *Quaest.disput.* 8, 94-114.
- Solís García, P.(2018). La importancia del juego y sus beneficios en las áreas de desarrollo infantil. *Voces de educación*, 4, 48.
- Tejado Cabeza, B. eta Romero Pérez, C. (2017). El juego dramático como estrategia de inclusión y de educación emocional: evaluación de una experiencia en educación infantil. *Cuestiones pedagógicas*, 26, 145-160.

10 ERANSKINAK

10.1 GURASOENTZAKO GALDETEGIA

Galderak erantzuteko 1etik 5era izango dute, 1a gutxi izanik eta 5 a asko.
1.Haurra zein maiztasunarekin dator ludotekara?
2.Ludotekara joatea eskatzen dizu?
3.Haurra ludotekara pozik datorrela esango zenuke?
4.Ludotekan egindako gauzak kontatzen ditu etxean?
5.Egiten ditugun ekintzak gustatzen zaizkiola esango zenuke?
6.Ludotekan lagunak dituela esango zenuke?
7.Ludotekan izandako gatazkak kontatzen ditu etxean?
8.Hezitzaileekin ondo moldatzen dela esango zenuke?
9.Ludotekako ekintzetan parte hartzera gonbidatzen zaitu?
10.Ludotekako ekintzekin pozik zaudete gurasoak?

10.2 BEHAKETA TAULA

Harreman sareak	
Nolako taldetan jolasten dute?	Lhko haurrak talde handiagoetan eta HHko haurrak nahiko independenteak dira.
Zeren arabera taldekatzen dira?	Nagusietan adina eta txikietan askotan sexua
Zein rol hartzen dituzte taldekatzean?	Beti dago gehien agintzen duena eta gainontzekoek jarraitzen dute
Liderra dago?	Bai, oso argi dago gainera.
Zeren arabera onartzen edo baztertzen dituzte taldekideak?	Gehienetan eskolatik dakartzaten gatazken arabera.
Taldekatzean aldatu dira?	Bai
Elkarbizitza eta partehartzea	
Zein modutan hitz egiten dira beraien artean? eta helduei?	Nagusiek errespetu faltak izaten dituzte beraien artean baina txikiek ez,

	helduekiko ere ez dituzte errespetu faltarik izaten.
Nolako tratua izaten dute?(haur zein helduei)	Kasu askotan beraien artean tratu zakarra izaten dute, haur batzuk baztertuta utziz.
Parte hartzea kooperatiboa edo konpetitiboa izaten da? laguntzen dira?	Ekintzaren arabera izaten da, hala ere, konpetitiboak diren jolasetara jolastea asko gustatzen zaie eta normalean liderrari laguntzen diote.
Entzuten badakite? Enpatikoak dira?	Orokorrean bai
Arauk betetzen dituzte?	Arau batzuk betetzea beste batzuk baino gehiago kostatzen zaie, batez ere jolasetako arauak eta hauek interesen arabera betetzen dituzte. Hala ere ludotekako arau orokor gehienak betetzen dituzte.
Parte-hartzaileak dira? Proposamenak egiten dituzte?	Orokorrean bai
Gatazkak eta aniztasuna	

Desberdinak onartzen edo baztertzen dituzte?	Onartzen dituzte
Berriak ezagutzeko interesa dute?	Bai, asko.
Zein haur ikusten dute desberdin?	Nahiko berdin ikusten direla esango nuke.
Zerk eragiten ditu gatazkak?	Jolasen arauak, materiala konpartitzea eta botere harremanak.
Nola kudeatzen dituzte gatazkak?	Beraien artean saiatzen dira baina ez direnez adostasunera heltzen niregana jotzen dute
Nortzuk hartu dute parte gatazkan?	Lehen hezkuntzako haurrak haur hezkuntzakoekin. Bi taldeek nahi dute psikomotrizitate gela erabili baina ez dute elkarrekin jolastu nahi.
Hezitzaileari laguntza eskatu diote?	Bai

10.3 SAI OEN EGUNEROKOA

Data: 2020-03-09

Partaide kopurua: 10 haur guztira. Haur Hezkuntzako 4 haur eta Lehen Hezkuntzako 6 haur.

Programatuta nuen bezala, lehenik eta behin azalpenak eman dizkiet eta gogotsu azaldu dira ekintzetan parte hartzeko. Lehenengo jolasa lurra ura eta zerua jolasa izan da, asko gustatzen zaien jolas bat eta kanpoan espazio egokia dugunez bertara irten gara jolastera.

Bigarren ariketa, psikomotrizitate gelan kasuistika desberdinak aipatzea eta hauek sortzea edo antzeztea izan da. Lehenengo proposamena, logela bat eraikitzea izan da eta segituan hasi dira hau egiten, aurreikusita nuen bezala haur nagusienek hitza eraman dute eta txikiek hauen aginduak betetzen egon dira. Haur txiki batzuk ikusle moduan aritu dira eta ondoren jolasean hasi dira koltxonetetan, honek, nagusien haserrea ekarri du. Momentu horretan eskatu diet mesedez gainontzeko lagunak errespetatzeko, ekintzan parte hartu nahi ezean, ikusle bezala egoteko baina errespetatuz. Logela sortu dutenean azalpenak eman dituzte, beste behin lehen hezkuntzako haurrak izan dira bozeramaileak.

Bigarren kasuistika bat azaldu diet, zirko bat sortu behar dute. Oraingoan aholku batzuk eman dizkiet, esan diet ea zer iruditzen zaien borobil batean esertzea eta idea zaparrada bat egitea ondoren adostasun batera iristeko. Horrela egin dute, borobil batean ideak bota eta ondoren adostasun batera iritsi dira. Oraingoan lehen hezkuntzako haur batek hartu du agintari rola baina bere diskurtsoa asko aldatu da, gainontzeko haurrei egin beharrekoa esan aurretik ea egokia iruditzen zitzaion galdetu die, adibidez: zer iruditzen zaizu zu pailazoa izatea? Hau da, bestearen iritzia kontutan hartu du.

Haur txikienek mozorroa jantzita jolasean hasi dira, ispiluan begira eta dantzan harrapaketan...baina oraingoan lehen hezkuntzako haurrak nahiko entretenituta daude zirkoa prestatzen eta ez die kasurik egiten txikienei.

Lehen hezkuntzako bi haur daude atentzioa deitu nahian, gainontzekoak zirikatzen hasi dira pixka bat eta hauek haserretzen hasiak dira. Ikusi dudanean ez zietela beraien kexei kasurik egiten nik gogorarazi diet mesedez errespetatzeko, parte hartu nahi ezean beste gauza batzuk egiteko aukera daukatela. Orduan hauetako bat, gainontzekoengana zuzendu da agindu bila. Nahiko haur lotsatia da horrelako gauzetarako eta beti egoten da besteen aginduen zain horrelako jolas edo ekintzetan.

Haurrak oso gustura daude zirkua sortzen, mozorroak eta guzti prestatu dituzte eta hain gustura ikustean proposatu diet zirko ikuskizun bat egitea. Guztiek baiezkoa eman dute haur hezkuntzako bi haur ez ezik, hauek ez zuten antzeztu nahi orduan zirko batean dauden pertsonaiak erreparatzen aritu gara eta konturatu gara sarrera saltzaileak behar genituela eta interes handia adierazi dute rol hori hartzeko. Denbora tarte hori erabili dut beraiek behar zuten atentzioa eta protagonismoa emateko eta elkarrekin sarrerak sortu ditugu, idazten ikasten hasi berriak dira eta oso gustura aritu gara sarrera hitza idatziz.

Arratsaldea konturatu gabe joan zaigu eta bukaeran ikuskizuna egin dute, asko landu dituzte mozorroak eta prestaketa baina antzezterako orduan asko lotsatu dira eta entseguak egin nahi zituzten behin eta berriz.

Oso positibo baloratzen dut gaurko saioa.

Data: 2020-03-11

Haur kopurua: 8 haur. Haur hezkuntzako 3 eta Lehen Hezkuntzako 5.

Gaurko saioa moldatu behar izan dut, COVID-19 gaitzogatik estatu mailan hainbat ikastetxe ixten hasi dira eta susmoa daukat astearen amaieran gureak ere itxiko direla. Ez jakintasun handia daukagu eta saioak egin ahal izateko, hauen iraupena murriztu eta bi saio egun berean egitea erabaki behar izan dut.

Gaurkoan gatazken kudeaketa, gorputza eta mugimendua landuko dugu. Haur gutxi daude gaurkoan eta batzuk ez dute parte hartu nahi orduan, ludotekako politikari jarraituz ez ditugu inoiz behartuko ekintza batean parte hartzera, hori bai, ekintzan parte hartu nahi ezean errespetuz jokatu beharko dute ekintza horretan parte hartzen gauden guztiokin. Hau da, ezingo dute zaratarik egin, ezingo dute guk erabili behar dugun espazioa erabili... gure ekintzara moldatu beharko dira beraien ekintzetan ibiltzeko.

Hasteko taldekatze jolasa egin dugu, taldekatze zenbaki desberdinak esan eta beraien artean elkartu behar ziren. 5 minutu egon gara jolas hau egiten, haur gutxi zirenez denbora nahikoa izan da taldekatze desberdinak sortzeko eta ikusteko nola gehienetan lehen hezkuntzako lider rola duen haurrarekin taldekatu nahi zuten denek. Bestetik, normalean nahiko lekuz kanpo gelditzen den haurra taldekatze jolasean ere bakarrik gelditu da kasu askotan. Lehen hezkuntzako lehenengo mailako neska bakarra da eta gainontzeko haurrekin ez du harremanik apenas, bakarrik bere ahizparekin jolasten du batzuetan baina ahizpak beste talde

batzuekin jolastu nahi du. Lanketa egiten gabiltza haurrak bere tokia topatu dezan baina ez da erraza izaten ari, izan ere, atentzioa deitzeko estrategia zirikatzea izaten delako eta gainontzeko haurrek ez dute nahi izaten berarekin jolastea.

Ekintza nagusia Augusto Boal autorean oinarrituta dago, berez taldetan banatu behar ginen baina talde txikia denez guztiok batera egingo dugu. Gatazka batzuk aipatuko ditugu eta 4 haurrek hau antzeztu beharko dute eta beste 4 ikusle izango dira, ikusle direnak gatazkari konponbidea bilatzen saiatuko dira. Proposatzen dituzten konponbideekin antzezleek aldaketa horiek antzezten joango dira konponbidea topatu arte. Hau da egin duguna, lehenengo gatazka izan da hiru haur jolasten zeudela eta laugarren bati ez diotela beraiekin jolasten uzten. Konponbide desberdinak azaldu dira:

- Hezitzaileari esan ez diotela jolasten uzten
- Hurrei esatea ludotekan guztiok jolastu behar dutela elkarrekin
- Galdetzea ea zergatik ez duten berarekin jolastu nahi
- Hurrei esatea norberarentzat ez duguna nahi besteei ez zaiela egin behar
- Beste haur batzuekin jolastera joatea

Hauek guztiak antzeztu ondoren, enpatiaren inguruan hitz egiten aritu gara. Ludotekan askotan gertatzen den gatazka bat planteatu dut eta askok beraien kezka azaldu dituzte. Gaurkoan ez daude ludotekan lider rol-a hartzen duten haurrak baina bai beraien aginduak betetzen dituztenak eta kontziente dira. Honen inguruan hitz egin dugu, norberak egin nahi duena erabakitzeko eskubidea duela gogorarazi diet. Txikienek adierazi dute beti nagusienez agintzen dutela egin behar dutela eta beti beraien jolasetara moldatu behar direla. Jolasten ez uztearen gatazkarekin denbora luze garamatza eta ez diot irtenbiderik aurkitu oraindik, hortaz, gaur haurrek emandako erantzun guztiak kurtso hauetan zehar nire ahotik irten diren konponbideak direla konturatu naiz eta gatazka honetan lanean jarraitu behar dela ere konturatu naiz.

Ekintza honekin denbora joaten hasi zaigu eta hirugarren saioan egin behar genuen ekintzekin hasi gara, hasteko psikomotrizitate gelara joan gara eta lurtean etzan gara musika lasaiarekin. Ekintza honetarako lehen hezkuntzako beste bi haur gehitu zaizkigu. Gutxinaka gorputz atalak mugitzen joateko eskatu diet, hanketatik hasita burura iritsi arte. Gorputz guztia mugitzen hasi garenean lurretik altxatu gara

eta bikoteka jartzea eskatu diet Oraingoan arazorik gabe taldekatu dira, badirudi enpatiarena fresko daukagula. Musika erritmo desberdinetako abestiak jartzen joan naiz eta ispiluaren jolasa egin dugu, haurrek asko gozatu dute eta barre pila bat egin dugu. Hain gustura zeudenez bikotez aldatzea proposatu diet eta oraingoan emozioak irudikatzen hasi gara. Badirudi gatazkekin izan dugun solasaldia eta gero lasaiago gelditu direla batzuk. Haur batzuen gurasoak etortzen hasi dira eta orduan konturatu naiz ia arratsaldea joan zaigula eta ekintza batzuk egin gabe zeudela, orduan, lehoi baten bila noa kantatu jolasa egitea proposatu diet ekintzak amaitzeko eta gogotsu azaldu dira. Nolabait adrenalina pixka bat askatzea lortu dugu eta gaurkoan zeharka talde izaera lantzea lortu dugu modu polit batean.

Data: 2020-03-12

Haur kopurua: 10 haur. Haur Hezkuntzako 3 eta lehen hezkuntzako 7

Gaurko saioa oso zaila izango da, COVID-19 gaitzaren ondorioak gurera iritsi dira eta eskola ixten dutela jakinarazi digute. Haurrak oso urduri daude eta ni hezitzaile bezala baita ere, guk abisurik jaso ez dugunez aurrera egingo dugu.

Azken momentuan erabaki dut bi saioen arteko nahaste bat egitea, ariketa batzuk uztartu egingo ditut. Hasierako ekintza lotsa galtzeko izango da, haur bakoitzari objektu bat emango diot eta erabilera fiktizio bat bilatu beharko diote. Hauek izango dira erabiliko dituzten objektuak: erratza, egurrezko bi pieza, peluka bat, uztaila, plastikozko pote bat, bufanda bat, plastikozko bol bat, soka bat, gitarra bat, panpin bat, jostailuzko kotxe bat eta lanbasa. Haurrei barregura handia sartu zaie, oso urduri daudela nabaritzen da eta adrenalina hori askatzeko zerbait egin behar dugu. Gaurkoan ohikoa baino eskuzabalagoa izan beharko naiz jarrera kontuetan, zarata asko egiten dabilta, asko mugitzen dabilta eta kasu egitea kosta egiten zaie, oso normala da bizitzen gauden egoeragatik.

Haur bakoitzak, esan bezala, erabilera fiktizio bat bilatu beharko dio bere objektuari eta txandaka antzestu egingo dute. Ondoren guztien artean istorio musikatua egin dugu, bakoitzak bere objektuarekin istorio zati bat asmatu beharko du eta horretarako borobilean eseri gara eta txandaka istorio eratzen joan gara antzetzuz eta musika edo soinua ipiniz. Haur txikienak lotsatu egin dira istorioa asmatzerakoan eta blokeatuta gelditzen dira, horregatik nire laguntza eskaini diet eta elkarrekin istorio zatia asmatu dugu. Aurrez aipatu bezala haurrak oso urduri daude baina ekintzarekin ondo pasatzen ari dira, urduritasun horrek oso aktibo egotera eraman ditu eta lotsaz ahaztu dira.

Amaitzeko ahotsa landuko dugu eta horretarako borobilean jarrita hainbat eredu ipini dizkiet, adibidez:

-Zu! ekarri arkatx bat oraintxe bertan! (oihu eginez)

-Neskatila (kar kar kar) kamiseta zikindu duzu (kar kar kar) (barre eginez.)

-Jaso jostailuak (baxu hitz eginez)

Guzti hau esan ondoren, guztion artean hitz egin dugu eta komentatu dugu nola sentitu garen hauek entzutean. Guztiek esaten dute ez zaiela batere gustatzen oihu egiten dietenean zerbait esateko edo barre egiten dietenean, gainera gaizki sentitzen direla. Haur txikienean aipatu dute andereño bat dagoela oihu egiten hitz egiten duela eta ez zaiela batere gustatzen, buruko mina jartzen diela. Honekin batera aipatu diet oso garrantzitsua dela gaizki sentitzen garenean zerbaitegatik, beste pertsonari esatea zeren eta pertsona hori momentu horretan guri zuzentzeko modua aldatu dezake. Haur bakoitza adibide bat jarri nahi izan du, adibidez ludotekako beste haur batek barre egin ziola jausi egin zen egun batean, edo beraien gurasoek oihu egiten dutela batzuetan...etab. Honekin batera galdetu diet ea beraiek ere horrela hitz egiten duten batzuetan eta guztiek baietz aipatu dute, haserretzen direnean oihu egiten dutela eta batzuetan hitz zatarrak esaten dituztela.

Gaurkoan ere, betiko esaldia aipatu dugu, norberari jasotzea gustatzen ez zaiona ez egin besteei eta gaurkoan ere, hitz egitearen garrantziaz jabetu gara, gure sentimenduak adierazteko garrantziaz.

Honekin amaitu dugu gurasoak etortzen hasi dira eta galdera pila batekin etorri zaizkit COVID-19an inguruan eta amaitutzat eman behar izan dugu saioa.